Espediente-zk.: 2023008
Kontratazioaren xedea: "Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Politikaren Atlas Historikoa 2021-2024 aldian eguneratzen laguntzeko aholkularitza-zerbitzua" ematea
Dokumentua: Preskripzio Teknikoen Agiria.

1. TESTUINGURUA - AURREKARIAK

Aurrekariak

Azken hamarkadetan, Euskadiko ehun produktibo, ekonomiko eta sozialak eraldaketa-prozesu sakon bat bizi izan du lehiakor izaten jarraitzeko ingurune berri honetan, non nazioarteko presentzia, IKTen erabilera, kalitatea eta aurrerapen teknologikoa, berrikuntza eta espezializazio adimenduna, besteak beste, funtsezko lehiakortasun-faktore bihurtu baitira.

Euskal Politika Industriala plataforma honako helburu honekin jaio zen: Euskadik hainbat arlotan (politika industrialean, sustapen industrialean eta lehiakortasunean, finantzaketan, ekintzailetzan, azpiegituretan, teknologian, berrikuntzan, EIKTetan, nazioartekotzean, politika energetikoan eta ingurumen politikan) metatu duen jakintza sakona berreskuratu eta zabaltzea sarbide unibertsaleko espazio bakar baten bidez. Hala, erreferentziazko tresna da Eusko Jaurlaritzak Euskadiren eraldaketa prozesua gidatzeko baliatu dituen giltzarriak, filosofia, helburuak eta ekimenak zeintzuk izan diren jakiteko. Aurrerantzean, Euskal Politika Industrialak honako izen hau jasoko du: "**Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Politikaren Atlas Historikoa**" edo "**Plataforma**".

https://politicaindustrialvasca.spri.eus/ webgunean 80ko hamarkadaren hasieratik 2020ra arte egindako industria-garapeneko politikei buruzko informazio guztia bildu da. Informazio hori aurretik adierazitako ekintza-eremuak egituratuta daude; honako hauek dira (aurrerantzean, "**ekintza-eremuak**"):

- Berregituratze Industriala.
- Sustapen Industriala eta Lehiakortasuna.
- Finantzaketa.
- Ekintzailetza.
- Azpiegiturak.
- Teknologia, Berrikuntza eta EIKT.
- Nazioartekotzea.
- Politika Energetikoa.
- Ingurumen Politika.

Plataforma hau tresna bizi eta dinamiko bat da, etengabe eguneratuko da eta sarbide unibertsala eskaintzen du Euskadiren lehiakortasunaren giltzarriak ulertarazteko eta, aldi berean, "Euskadi Basque Country" marka nazioartean errotzen eta zabaltzen laguntzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Politikaren Atlas Historikoa lagungarria izango da euskal ekonomiak eta gizarteak bizi duten eraldaketaren historia bizirik mantentzeko; horretarako, eraldaketa prozesu sakon horretan gauzatu diren programa, ekimen eta ekintzak ezagutzera emango ditu. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez erabil daiteke, eta bilaketa motor baten bidez 300dik gora eduki-fitxa identifikatu daitezke (planak, programak, zerbitzuak, gizarteak…); fitxa bakoitzak labur azaltzen du azken 4 hamarkadetan euskal politika industrialaren arloan martxan jarri diren ekimen guztien funtsa eta funtzionamendua.

Plataforman bildutako informazioak ekintza mota asko barne hartzen ditu (planak, programak, zerbitzuak, gizarteak, ekimenak…), goian adierazitako epean garatuak eta martxan jarriak, eta fitxetan egituratuak (gaur egun, 302). Honako egitura hau dute:

- Ekintzaren helburua.
- Aurrekariak.
- Ekintzak.
- Emaitzak.
- Arau-oinarria.

Informazio guztia ikus-entzunezko elementuez eta intereseko erreferentziez lagundutako dago.

Era berean, plataformak baditu hainbat funtzio nabigazio-esperientzia hobetzeko:

- *Home* (hasierako orria): hemendik sartzen da bilatzailera, nabigazio-mapara eta *Euskal Politika Industriala* plataformako eduki guztien aurkibidera. Horien osagarri, karrusel interaktibo batek mugarri historikoak, bideoak eta aldi-bateko irudien konparatzaile bat eskaintzen ditu.
- *Esploratu:* hemendik eduki-fitxak bilatzen dira terminoak sartuz eta iragazkiak zehaztuz. Fitxa horiek epe zehatz batean edo informazioa egituratzen den ekintza-eremu jakin batzuetan mugatu ahal izango da.
- *Ekintza-eremuak:* ekintza-eremu bakoitzean informazioa aurkitzen da hainbat ekimenen inplementazioari buruz (eduki-fitxetan bildutako informazioa).
- *Kronograma:* ekimen guztiak eskematikoki bistaratzen ditu euren ekintza-esparruaren, abiaraztearen eta iraupenaren arabera.
- *Denbora-lerroa:* eduki-fitxa guztiak kronologikoki ikusarazten ditu, 1981etik aurrera.
- *Adierazleak:* Euskadiko datu sozio-ekonomikoen bilakaera erakusten du eta beste geografia batzuetako datuekin konparatzen ditu.

2. KONTRATAZIOAREN XEDEA

Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren (aurrerantzean, "**SPRI"**) Enpresa Sustapenerako Arloak "Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Politikaren Atlas Historikoa 2021-2024 aldian eguneratzen laguntzeko aholkularitza-zerbitzua" kontratatu behar du. Zerbitzu horiek preskripzio teknikoen agiri honetako hurrengo atalean zehazten diren lanak egitean datza.

Kontratuaren xede diren jarduerak gehien bat Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira. Horien iraupena 3 urtekoa izango da, kontratua formalizatzen den unetik.

Hala, aholkularitza-zerbitzuak hiru urtez egingo dira, honela:

- 2023. urtea: 2021eko eta 2022ko eguneratzea eta sarrera berriak. Zerbitzu horiek 2023/12/31 baino lehen amaitu beharko dira.
- 2024. urtea: 2023ko eguneratzea eta sarrera berriak. Zerbitzu horiek 2024/12/31 baino lehen amaitu beharko dira.
- 2025. urtea: 2024ko eguneratzea eta sarrera berriak. Zerbitzu horiek 2025eko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dira.

3. GARATU BEHARREKO JARDUEREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

3.1 HELBURUAK

Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Politikaren Atlas Historikoko informazioa eguneratzea, eta eduki berriak garatzea, 2021ean eta 2022an martxan jarritako plan berrietan eta ekintzetan oinarrituta. Horrez gain, Plataforma (aurrerantzean, "**Proiektua**") egituratuta dagoen ekintza-eremu guztietan 2023an eta 2024an garatutakoak aintzat hartuko dira.

Eguneraketa hori gaur egun plataforman dauden eta 2021-2024 aldian egindako jarduerengatik eragina pairatzen duten fitxetan egin beharko da. Halaber, epe horretan (2021-2024) garatutako ekintza berriekin lotutako ekintza berriak gauzatu beharko dira (planak, programak…). Eduki berrien sorrerak fitxa gehigarriak egitea ekarriko du, eta fitxa horien edukiak gaur egun plataforman biltzen diren fitxen egitura jarraitu beharko du.

Gainera, egindako ekintzengatik (ekintza-eremuak, kronograma, denbora-lerroa…) eragindako Plataformaren esparru guztietan eta haren 10 adierazle sozioekonomikoen egokitzapenak sinkronizatu eta txertatu beharko dira.

Hori guztia Plataforma diseinatutako hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta ingelesa) egin beharko da.

3.2. KONTRATUAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Oro har, egin beharreko jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Politikaren Atlas Historikoan eguneratze-lanak egitean eta eduki berria sortzean oinarrituko dira, eta bi jarduerak egongo dira 2021-2024 aldiarekin lotuta. Zehazki, honako hauek izango dira egin beharreko zereginak, gutxienez:

- Plataforman gehitutako eta horiei buruzko informazio berriagatik eragindako fitxak identifikatzea eta eguneratzea, 2021-2024 aldian.
- 2021-2024 aldian martxan jarritako planei, programei, ekimenei... buruzko eduki berriak garatzea, 3 hizkuntzatan.
- Fitxen eta sortuko diren fitxa berrien eguneratzeek gaur egungoen egitura mantendu behar dute, bai formari dagokionez, bai edukiari.
- Plataforman eduki guztietan egin behar dira eguneratzeak; hau da, ekintza-eremuan, kronograman, denbora-lerroan…

- Fitxa berrietan, eta, hala badagokio, eguneratu behar diren fitxetan elementu bisualak gehitzea (irudiak, bideoak, grafikoak...).
- Honako hauek eguneratzea: (i) Plataformaren erabiltzaile-gida, (ii) ekintza-esparru bakoitzeko halabeharrezko mezuak; eta (iii) 10 adierazle sozioekonomikoak eta dagozkien grafikoak.
- Diseinu- eta programazio-jarduketen beharrezko eguneratzeak, betiere plataformaren diseinu funtzionala eta bisuala mantenduta.

Bereziki baloratuko dira plataforma erakargarriagoa izateko laguntzen duten beste funtzionaltasunak eta hobekuntzak, besteak beste, erabilgarritasun berriak badira, edo egungoak hobetzen badira.

Plataforman egiten diren eguneratze eta gainontzeko aldaketa guztiak gaur egun bertan jasotako 3 hizkuntzetan egin behar dira (euskara, gaztelania eta ingelesa).

Zerbitzua dimentsionatzea

Proiektua esleitu zaion taldeak bat etorri beharko du zerbitzuaren beharrizanekin, eta baliabide egokiak bideratu beharko dira ataza bakoitzera, eta 4. paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsonak zentzuz izendatu beharko ditu.

4. LANTALDEA

4.1. OSAERA

Lantaldea enpresa adjudikaziodunak berme osoz lehen deskribatutako fase guztiak eta adierazitako produktuak eta zerbitzuak asetzeko beharrezkotzat jotzen dituen profesionalen kopuruak osatuko du. Era berean, taldea orekatu ahal izango da, Proiektua egiten ari den bitartean pertsona guztiek dedikazio osoa eta esklusiboa ez izateko.

4.2. PROIEKTUARI ATXIKITAKO PROFILAK

Lana gauzatuko duten profesionalek agiri honetan adierazitako lanak behar bezala egiteko eta helburu desiragarrietara iristeko trebakuntza eta esperientzia izango dituzte. Bereziki, honako hauek baloratuko dira:

- Euskadiko enpresa- eta teknologia-esparruak ezagutzea.
- Agiri honen xedearen antzeko proiektuetan parte hartu izana. Industria-politiken esparruan, eta, zehazki, ekintza-eremuan esperientzia frogagarria izan beharko da.
- Gutxienez, proposatutako lantaldeko kide batek C1 mailan edo baliokidean ingelesa eta euskara menderatzea. Ez du halabeharrez pertsona bera izan behar.

Hala, lizitatzaileak, gutxienez, honako profil profesionalek osatutako lantaldea aurkeztu beharko du:

- Proiektuaren zuzendaria eta SPRIrekin solaskide nagusia izango den pertsona bat.
- Proiektuaren esparru funtzional eta teknologikoak batera bete beharko dituzten 2 pertsona edo gehiago.

Langileek, gutxienez, honako esperientzia hau izan beharko dute:

Profil profesionala	**Beharrezko gutxienezko esperientzia**
Zuzendaria	8 urtetik gora.
Gainontzeko profilak	3 urtetik gora

Langile horiek beren-beregi enpresa adjudikaziodunaren mende egongo dira. Ez dute inola ere lan-, kontratu- ala funtzionario-harremanik edo antzekorik izango Eusko Jaurlaritzarekin, SPRIrekin eta/edo horiek kide diren sozietateekin, ez kontratuaren indarraldian, ez eta kontratu hori amaitutakoan ere.

4.3. LANAK ZUZENDU ETA JARRAITZEA

SPRIn Proiektuaren Zuzendaritza Teknikoari dagokio lanak erabat ikuskatu eta zuzentzea, iruditzen zaizkion aldaketak proposatzea edo, bidezkoa bada, lan horiek eteteko proposatzea, nahikoa arrazoitu ondoren.

Lanen egoera berrikusteko, SPRIren Enpresa Sustapenerako Arloak, Proiektuaren hasieran, SPRIn kontratuaren arduradun gisa izendatutako pertsona adieraziko du (aurrerantzean, "**SPRIko kontratuaren arduraduna**"). Agiri honi dagokionez, SPRIko kontratuaren arduradunaren zereginak honako hauek izango dira:

- Kontratatutako zerbitzuak behar bezala betetzen direla zaintzea.
- Aldian-aldiko bilerak egitea SPRIko ordezkariekin eta adjudikaziodunarekin, kontratua gauzatzean gertatzen diren gorabeherak zehazteko, aztertzeko eta baloratzeko.
- SPRIn inplikatutako arloei jakinaraztea proiektuaren mugarriak betetzen direla, proiektuaren gorabehera garrantzitsuak, zerbitzu eta desbideratzeen aurrerapen-maila, eta, beharrezkoa bada, proposatutako neurri zuzentzaileak.
- SPRIKo kontratuaren arduradunak proiektuaren segimendurako egokitzat jotzen dituen bilera guztiak dei ditzake, eman beharreko zerbitzuak behar bezala betetzeko eta proposatutako helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen baditu. Adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da jarraipen-txostenak eta bilerako aktak idatzi eta banatzea.
- SPRIko kontratuaren arduradunak ezartzen dituen beharrak eta lehentasunak asetzen direla bermatzeko, hasieratik egin beharreko lanen gidalerroak zehaztuko dira, eta adjudikaziodunak ezinbestez bete beharko ditu.
- Zerbitzuak garatzen ari den bitartean, jarraipen- eta kontrol-zereginen barruan, eskatu ahalko dira entregagai partzialak, batetik, egindako lanak egiaztatzeko, eta, bestetik, proiektuan zehar desbideratze-arriskuak (epean eta/edo irismenean) saihestu eta murrizteko.

Aldizkako bileretan, planifikatutako helburuak betetzean sortu diren gorabehera guztiak ebaluatuko dira. SPRIren kontratuaren arduradunak uste badu gorabehera horiek erantzukizun ezagatik, gaitasunik ezagatik, axolagabekeriagatik edo antzeko arrazoiengatik adjudikaziodunari egotzi behar zaizkiola, administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusitako zehapenak aplikatu ahal izango dira.

5. ZERBITZUEN IRAUPENA

Kontratua formalizatu eta hurrengo egun baliodunean hasiko da kontratua, eta 2025eko abenduaren 31n amaituko da. Epe horretan, ezarritako zerbitzuak eman beharko dira, eta eskatutako kalitate- eta funtzionaltasun-maila bermatu; gainera, Kalitate Planean ezarritako prozesuak mantendu eta hobetu beharko dira.

6. INFORMAZIOAREN ETA DOKUMENTAZIOAREN BETEBEHARRAK

Adjudikaziodunak kontratuaren xede diren lanak egiten dituen bitartean hitzematen du, une oro, SPRIren kontratuaren arduradunak izendatutako pertsonei eskatutako informazio eta dokumentazio guztia emango diela, garatzen ari diren lanen erabateko ezagutza izan dezaten, baita egon daitezkeen arazoen berri eta horiek konpontzeko erabilitako teknologia, metodo eta tresnen berri ere.

Era berean, adjudikaziodunak, helburu horretarako izendatutako langileen bitartez, SPRIren kontatuaren arduradunak definitzen dituen proiektuaren jarraipen-bileretara joan eta horietan lagundu beharko du. Horretarako, adjudikaziodunaren langileei aurrerapen nahikoaz deituko zaie. Kontratuaren xede diren zereginen barruan, adjudikaziodunak hitzematen du egindako lanen dokumentazioa sortuko duela, SPRIren kontatuaren arduradunak kasu bakoitzean zehazten dituen irizpideei jarraikiz. Kontratua gauzatzen ari den bitartean adjudikaziodunak sortzen duen dokumentazio oro beren-beregi SPRIren jabetzakoa izango da. Kontratistak ezingo du kontserbatu, kopia bat eskuratu edo hirugarrenei helarazi SPRIk idatziz berariaz baimentzen ez badu. Dena den, emanez gero, helburua azalduko du, baina aurretiaz adjudikaziodunak eskaera formala egin beharko du.